

ERAKUNDEA

Zerbitzu bakoitza emateko esparrua modu honetan zehazten da:

- Uraren Ziklo Integrala (43 udalerri). Nafarroako Gobernuak Nafarroa Hornitzeko Plan Zuzentzailean emandako lurralde-mugapeak edo -demarkazioak zehazten du zerbitzu hori emateko esparrua.
- Hiri-hondakinak (48 udalerri). Nafarroako Hiri Hondakinen Plan Zuzentzaileak zehazten du zerbitzu hori emateko esparrua.
- Hiri-garraioa (18 udalerri). Iruñerrian bidaia-erakundeak garraiatzeko zerbitzu erregularra arautzen duen 8/1998 Foru Legeak, ekainaren 1ekoak, zehazten du horren esparrua. 2013an zerbitzu horretan parte hartu duten udalerriak 18 izan ziren.
- Taxi-zerbitzua (30 udalerri). Taxiei buruzko 9/2005 Foru Legeak, uztailaren 6koak, zehazten du horren esparrua.
- Eskualde-parkeak:
 - Ibai Parkea. 2000. urtean NILSarekin eta Nafarroako Gobernuarekin partzuergoa osatu zuten zortzi udalerri osatzen dute esparrua. 2007an partzuergo hori deuseztatu egin zen, eta Iruñerriko Mankomunitateak hartu zuen kudeatzeko ardura. Egun, 9 udalerri eratzten dute esparrua.
 - Ezkabako Eskualde Parkea. 2022aren amaieran onartua. Gutxi gorabehera 1.000 hektareako hedadura du, eta bere garapen-esparruak zortzi udalerriko lurak hartzen ditu barne.

